

UBIDESTROI-KO ARAUDIA

DATA ETA TOKIA

- Ubidestroi Trail-eko lasterketa Maiatzaren 11 izango da, Ubiden (Bizkaia) , irteera goizeko 9:00 izango da herriko plazan, helmuga ere leku berean.

IBILBIDEA:

- 28 km tako distantzia eta 2000 metroko desnivel positiboa izango du.
- Eguraldi baldintza oso kaxkarrak edo alerta egoera baten aurrean antolakuntzak ibilbidea osoki edo partzialki aldatzeko aukera izango du. Horretarako antolakuntza salbuespenak ibilbidea prestatua izango du.

PARTE HARTZAILEAK

- 300 dortsal banatuko dira orotara.
- 18 urteko gorako edozein pertsonak partu hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoak ere aukera izango dute betiere gurasoen baimenarekin.

KATEGORIAK

- Kategoria bakarra egongo da. Absoluta, eta kategoria honetan emakumezkoen eta gizonezkoen sailkapenak izango dira.

IZEN EMATEA

- Izen emate epea Abenduaren 20tik Maiatzaren 1a arte bitartekoak izango da. Edo dortsal kopurua agortu arte.
- Apirilak 1 erarte dorsalaren %70 itzuliko da. Data horretatik aurrera ez da itzulketarik egingo.
- Dorsalak pertsonalak eta transferi ezinak izango dira eta antolakuntzak NAN edo pareko dokumenturen bat eskatu ahal izango du egiaztatzeko. Nortasun ordezkapenak dortsal galerarekin zigortuko dira.
- Dorsal bakoitzak, opariaz gain ekintza aseguru pertsonalizatu bat izango du.
- Izen ematea Kronoak plataforma bidez egin beharko da derrigorrez.
- Dorsala jasotzeko orduan, korrikalariaren aseguru baliagarria izan dadin, korrikalariak bere nortasun agiria edo ordezeko baliagarriren bat erakutsi beharko du. Holakorik ezean antolakuntzak dortsalik ez emateko ahalmena izango du.

PREZIOA

- Prezioa euro 30.
- 27 euro, jubilatuta, ikasle eta ezgaitazun funtzionalen bat ziurtatzen duenari. (Ziurtagiria beharko da).

DERRIGORREZKO MATERIALA:

- Antolakuntzak derrigorrezko material bat eskatu ahalko du. Material hau ibilbidearen osotasunean gainean eraman beharko du korrikalari bakoitzak.
 - **Txanodun zira** eraman derrigorrezkoa izango da. (Berau txano gabekoa den kasuetarako korrikalariak burua babesteko buruko bat eraman beharko du ziraz gain)
 - **Manta termika.**
 - Baldintzen arabera **mugikorra** eramateko derrigortasuna ezarri ahalko da. (Lasterketa osoan piztuta eta batería nahikoarekin)

DORSAL BANAKETA

- Ostiralean Maiatzak 10 Ubideko frontoian 18:00-20.00 arte.
- Zapatuan maiatzak 11 ubideko frontoian 7:15-8:30 arte.

MATERIAL KONTROLA

- Goizeko 8:30etatik 8:50 lasterkearietako herriko plazara hurbildu beharko dute eta antolakuntzak korrikalari bakoitzari derrigorrezko materiala eskatu eta txekeatuko dio. Derrigorrezko materialik ezean, edo erakutsi nahi ez izatekotan, antolakuntzak dorsala hori ezgaitzeko aukera izango du.
- Dorsala gorputzaren aurrealdean eta ikusgarri den tokian eraman beharko da momento oro.

DENBORA MUGAK

- Lasterketa burutzeko gehienezko denbora 6:30 ordukoa da.
- Gorbeia gurutzetik (13km) pasatzeko gehienezko denbora 3h 30min terdikoa da.

- Saldropo anoagunean(21km) gehienezko denbora 5:00 ordukoa izango da.
- Eneabeko anoagunean (25km) gehienezko denbora 6.00 ordukoa izango da.

ANOAGUNEAK

- **Muruako kanterak:** solido likido, gurutze gorria eta kontrola(8 km.)
- **Gorbeia:** Likido eta kontrola (13 km.)
- **Saldropo:** likido,solido gurutze gorria eta kontrola (19km)
- **Eneabe:** likido eta solido,
- **Ubide:** Helmuga. Solido +likido eta gurutze gorria

SARI BANAKETA

- 14:30 emango zaio hasiera sari banaketari ,Ubideko herriko plazan jarriko den eszenatokian.

1. Mutila Txapela, Garaikurra eta 300€

2. Mutila 200 €

3. Mutila100€

1.Neska Txapela Garaikurra eta 300 €

2.Neska 200 €

3.Mutila100 €

- **ANTOLAKUNTZAK EDOZEIN ARAZO TEKNIKO ZEIN DESADOSTASUNAREN AURREAN EHF-KO MENDI LASTERKETEN ARAUDIA IZANGO DU EBAZTEKO OINARRI.**
- **AURTEN ERE ETIKETA BERDEA EKIMENAREN PARTE GARENEZ BERTAKO DEKALOGOIA OINARRITZAT HARTUKO DUGU.**

